

M.U.ko trailerrak unibertsitatea Euskal Herriko eskualde ezberdinetara gerturatzen du

2007/03/14

Martxoan zehar, Euskal Herrian batetik bestera ibili eta informazioa emango duen trailer ibiltaria jarri du abian **Mondragon Unibertsitateak**. Haren bidez, unibertsitateak bere eskaintza akademikoa eta ezaugarriak jakinaraziko dizkie ikasle, irakasle eta tutoreei.

Mondragon Unibertsitatea zuzenean ezagutu nahi duten unibertsitario, irakasle, tutore eta gurasoei zuzenduta daude jardunaldiak. Izan ere, bere fakultateetan eskaintzen dituen titulazioak zehatz-mehatz azalduko ditu unibertsitateak topaketa horietan, eta planteatzen zaizkion zalantza guztiak argituko ditu. Orobat, Mondragon Unibertsitateko arduradunek erakundearen berariazko ezaugarriak bertatik bertara adieraziko dizkiete gerturatzen direnei.

Helburuak

Jardunaldi horiek antolatuta zenbait helburu lortu nahi ditu **Mondragon Unibertsitateak**. Alde batetik, bere fakultateetako irakasleekin eta sailburuekin iritziak trukatu eta zalantzak argitzeko aukera ezin hobea da. Bestetik, bertara inguratzen eta parte hartzen dutenek unibertsitatearen errealitatea ezagutu ahal izango dute.

Mondragon Unibertsitatearen ezaugarriek garrantzi berezia hartuko dute jardunaldi ibiltarietan. Hala, unibertsitatearen honako berezitasun hauek azpimarratuko dira: besteak beste, enpresekin dituen harreman zuzenak, ikasleei prestakuntza eta lana bateratzeko eskainitako aukera eta karrera-bukaerako proiektuak. Unibertsitateko laneratze-indizea % 98,9koa da eta enplegu egokituaren (egindako ikasketei lotutakoaren) ehunekoak % 89koa da. Datu horiek eta beste batzuk ezagutaraziko zaizkie autobusera hurbiltzen direnei.

Horrekin batera, **Mondragon Unibertsitateko** hezkuntza-ereduaren eboluzioa eta **Mendeberri proiektua** izango dira unibertsitate-orientazioari buruzko jardunaldien oinarri nagusiak. Proiektu horrek gainditu egin du antzinako hezkuntza-eredua, ezagutzen transmisio hutsean oinarritua, eta ezagutzen, gaitasunen eta balioen garapena oinarri duen beste prestakuntza-mota bat eskaintzen du. Eredu hirueleduna da eta ikasleak, bere prestakuntza amaitzen duenean, bere jarduera euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurrera eramateko gaitasun handia lortzen du. Era berean, informazio- eta komunikazio-teknologiek eskainitako aukerak ahalik eta gehien erabiltzen dituen eredua da. Horrez gain, zeharkako gaitasunek berebiziko garrantzia dute eredu horretan eta ikaslearengan talde-lana, erabakiak hartzea, komunikazioa eta lidergoa bultzatzen dira, besteak beste. Hitz gutxitan, europar unibertsitateen espaziora egokitzeko erronkei erantzun zuzena ematen dion eredua da.

Ibilbidea

